

DEIALDIAK

UDAJOLASEN ETA KIROL JARDUERETAN IZENA EMATEKO EPEA

Apirilaren 16tik 27ra bitartean Udalararen udako kirol eta aisialdiko jardueretan izena emateko aukera izango da haur zein helduentzat.

Informazio gehiago: www.usurbil.eus webgunean eta udal eraikinetan.

ARROBILTZARRA. Apirilak 16, osteguna

17:30etan, Gazte lokalean.

Arrobiltzarra: proiektuaren definizioan jarraitu eta hurrengo arrobiekintzak garatzeko bilkura.



IGELDOKO CANOPY PARKERA IRTEERA (DBH1-ekoentzat)

Martxoak 30

Informazio gehiagorako: gaztelekuausurbil@gmail.com helbidera idatzi edo 688 713838 telefonora deitu.

KZ-GUNEKO IKASTAROAK



AURREZ AURREKOAK

Apirilak 7-9 09:00-11:00 Adimen artifiziala, ChatGPT eta haren alternatibak (6 ordu)

Apirilak 10-21 09:00-11:00 Kudeatu zaitez Google aplikazioekin (16 ordu)

Apirilak 22-24 09:00-11:00 LibreOffice Impress. Zure aurkezpenak sortu (6 ordu)

Apirilak 27-30 09:00-11:00 LibreOffice Impress. Zure dokumentuak sortu (8 ordu)

Apirilean Kzgunea: Goizez 09:00-13:00
Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzgunea.net · www.kzgunea.eus

UDAL LIBURUTEGIA




Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30

● Itxita

● Goizez 10:00-13:00

✗ Arratsalde 16:00-19:30



Sutegi Udal Liburutegia · Irazu kalea, 14 · 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

BISITA GIDATUAK

- **Apirilak 11 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudioa.** 11:00 Sutegin.
- **Apirilak 17 Txixoren erakusketa: Polen.** 18:30 Sutegin.
- **Apirilak 19 Museo irekia eta Txixoren erakusketa: Polen.** 11:00 Sutegin.
- **Apirilak 22 Zero Zabor.** 10:00 Udaletxean.
- **Apirilak 24 Zaintzaren Usurbil.** 10:00 Udaletxean.
- **Apirilak 25 Museo Irekia eta Salvatore Eliza.** 11:00 Sutegin.
- **Apirilak 26 Usurbilgo Sagardoaren Kultura. Bertso-ibilaldia.** 10:00 Aginagan.

Sarrerak <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

Telefona: 747 485 140 · turismoa@650usurbilbizi.eus



USURBIL KULTURA

2026ko **apirila**

	Larunbata 19:00 Eliza Zaharrean	KORRONTZI: MUNDUA DANTZAN JARRIKO NUKE	11
	Asteazkena 18:00 Sutegin	HITZALDI ZIKLOA: "HERIOTZAREN AURREN HOBETO KOKATU GAITEZKE... GUTXIENEAKO JAKINEZ GERO"	15
	Larunbata 19:00 Pelaiotegian	BEA LARRAÑAGA "FLIPA BALBINA: KLOWN EMAKUMEAK HISTORIAN"	18
	Osteguna 18:30 liburutegian	ITZALEN TEKTONIKA	23
	Larunbata Egun osoko jaia	XIV. DANTZA EGUNA	25
	Igandea 10:00 Txokoaldeko Erroizpe elkartetik	BERTSO-IBILALDIA USURBILGO SAGAR ETA SAGARDOAREN KULTURA ETA PAISAIA BARRENA	26
	Igandea 12:00 Mikel Laboa Plazatik	KANTU JIRA	26
	Asteartea 18:00 Udal liburutegian	IXABEL AGIRRESAROB: LIBURUA LAGUN, IPUINA KONTAKIZUN	28

ERAKUSKETA

Astelehenetik ostiralera: 11:00-13:00 / 17:00-20:00 Larunbat eta igandeetan: 11:30-14:00 / 17:00-20:00	ARTE GARAİKIDE ERAKUSKETA: "POLEN"	Martxoak 20-Apirilak 19
---	---------------------------------------	-------------------------

DEIALDIAK

Apirilak 16-27	UDAJOLASEN ETA KIROL JARDUERETAN IZENA EMATEA
Apirilak 16 17:30 Gazte lokalean	ARROBILTZARRA



Zuen deialdiak zabaltzeko,
bidali hilaren 15a baino lehen
kultura.usurbil.eus helbidera.



Usurbilgo Udal

Kultura, Euskara
eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus



usurbilkultura.eus

Herritarren tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko



2026ko **APIRILA**

USURBIL Kultura



MUNDUA DANTZAN JARRIKO NUKE KORRONTZI BANINTZA

Oinkari Harribil Orbeldi
(Billabona) (Orio) (Usurbil)
DANTZA TALDEAK

APIRILAK 11

Eliza Zaharra Kulturgunean

Korrontzi Mundua dantzan jarriko nuke

Antolatzailea: Eliza Zaharra Kulturgunea.
Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Bizimaña.
Sarrerak: 12€ usurbilkultura.eus webgunean eta Arrate Ostatuan.

Mundua dantzan jarriko nuke Korrontzi banintza + Oinkari (Billabona) + Harribil (Orio) + Orbeldi (Usurbil) dantza taldeak.



Filipa Balbina: Klown emakumeak historian

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
Sarrera: doan.
Gonbidapenak: usurbilkultura.eus webgunearen bidez.
Ikuskizun-dokumentala: Bea Larrañaga artistaren eskutik.



Antzezpina Bea Larrañaga emakume pailazoak egingo du. Zenbait pailazo antzeztuko ditu, hiru clown-arketipo baliatuta: aurpegi zuria, augusta eta kontra-augusta. Arketipo horiek oso arruntak dira zirkuan, eta normalean gizonezkoek antzeztu izan dituzte. Proiekzio Dokumentalean idatzizko materiala, argazkiak eta bideoak erakutsiko dira. Bea Larrañagak egin du bilketa historikoa, Merche Ochoak lagunduta (pailazoa eta 2014ko Zirkusari Nazionalaren irabazlea). Ikuskizun-Dokumentalean zehar, irudien, zuzeneko ikuskizunaren eta ikusleen arteko elkarrekintza egongo da. Horren emaitza ikuskizun dinamiko, entretenigarri eta informatiboa da. Barre egingo dugu, hunkituko gara, eta aurrez sekula entzun gabeko istorioekin aterako gara.

Itzalen tektonika emanaldia

Antolatzailea: Udal liburutegia.
Iraupena: ordubete inguru.

Hitzak Itxaro Bordaren eskutik, musika Ibon RGren kontura.



XIV. DANTZA EGUNA

Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

VII. DANTZARI TXIKI:
Talde gonbidatuak:
 Gure Txeru (Getaria), Jalgi (Zarautz) eta Murixka (Lezo)
 11:30 Kalejira udaletxetik abiatuta.
 13:00 Ekitaldi nagusia frontoian.

14:30 Herri bazkaria Askatasuna Plazan.
 *Bazkaritarako tiketak Artzabalen eta Lizardin eros daitezke apirilaren 21a arte.
 17:00 Harkaitz Allur eta Maddalen Arzallus trikitilariak Artzabalen.
 22:00 "Aitaren Gutuna" ikuskizuna Frontoian
 Ondoren, **Iratzar** erromeria Mikel Laboa plazan.



Liburua lagun, ipuina kontakizun

Antolatzailea: Udal liburutegia.
Iraupena: 50 minutu inguru.

Ixabel Agirresaroberen eskutik; haurrentzat eta beraien guraso edo laguntzaileentzat.



Bertso-ibilaldia Usurbilgo Sagar eta Sagardoaren kultura eta paisaia barrena

Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo baseritarren Kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea eta 650 Usurbil bizi.
Hizketako gaiaren gidaria: Jakoba Errekondo.
Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña.
Izena emateko: <https://650usurbilbizi.eus/agenda>



Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Hilero bezala, apirilean ere indarrez eta umorez Usurbilgo kaleetan zehar kantuan ibiliko gara, baina oraingoan IGAN-DEAN. Egun horretan jai denez, behar bada aukera gehiago izango duzue bertan parte hartzeko. Beraz, animatu zaitezte gurekin batera herria alaitzera.



ERAKUSKETA

TXITXOREN ERAKUSKETA: POLEN

Arte garaikidea Sutezin.
Tamaina handiko oleo-pinturak eta eskulturak.

Non: Suteziko erakustaretoan.

Noiz: Martxoak 20 – Apirilak 19


Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00

Larunbat eta igandeetan: 11:30-14:00 | 17:00-20:00

Naturan polena hedatzen den bezala, kolorea eta materia espazioan zehar zabaltzen dira. Bizitzaren eta sorkuntzaren hasiera.

Apirilaren 17an eta 19an artistak berak erakusketaren inguruko azalpenak emango ditu.

Izena emateko: <https://650usurbilbizi.eus/agenda>



Apirilak 15, asteazkena "Heriotzaren aurrean hobeto kokatu gaitzke... gutxienekoa jakinez gero" hitzaldia

18:00 Suteziko auditoriumean



HERRI
 ZAINZAILEA
 USURBIL

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.
Hizlaria: Nere Erkiaga (Hil Arte Bizi elkarte)
Sarrera: doan.
Gonbidapenak: usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Pertsonok heriotzaren aurrean hobeto kokatzeko berezko baliabideak ditugu. Heriotzaren inguruan eraikitako beldurrei buruz eta heriotzaren inguruko alor ezberdinei buruz begirada orokor bat eskainiko dugu, alor bakoitzean herritar bezala ditugun eskubideak eta hartu ditzakegun erabakiak ikusteko.
 Hitzaldia euskaraz izango da, gaztelaniazko aldebereko itzulpenarekin.

Hitzaldi zikloa: komunitatetik, heriotzaz

Heriotza ardatz izango duen hitzaldi zikloa, saio bakoitzean alderdi desberdin batean arreta jarrita: eskubideak eta erabakitze ahalmena, heriotza eta gaztetasuna, heriotzaren aurrean izan diren lekukotzak, literatura, kultur arteotasuna... Apiriletik azarora, zazpi saio izango dira.